

Bertsokleta ekimena igandean: euskara eta natura uztartzeko proposamena

- Urriaren 13an ospatuko da ekimena, Goikoplazan hasi eta Otieta parkera arte
- Bizikletan osatuko da ibilbidea (8,5 km), eta geldialdiak egingo dira bertsoez gozatzeko

Andoainen, 24-10-08.- Euskara eta ingurunea lotuko dituen ekimen deigarri batez gozatzeko aukera izango dugu igande honetan (urriaren 13an).

BERTSOKLETA deitzen da ekimena, eta bertsoak eta bizikleta lotuko ditu: Goikoplazatik hasiko da ekimena, goizeko 10:30etan, eta Otieta parkera bitarteko ibilbidea osatuko da, 8,5 kilometro guztira, bidean geldiuneak eginez. Geldiune horietan bertsoez gozatzeko aukera egongo da; bertan izango dira Aitor Mendiluze eta Eli Pagola bertsolariak.

Bizikleta hartu eta Leitzarango bide berdeek eskaintzen duten parajeez gozatzeko aukera paregabea izango da igandekoa, baita bertsoez bitartez gure kulturara gerturatzekoa ere. Udalak herritarrak animatu nahi ditu parte hartu dezaten.